# ARRATIA-PALENQUE (LOS RIOS-EKUADOR): ZUBIAK EREGITEN (1948-2012)

## Arratiako Elizak antolatuta

Urtarrilaren 10etaik 31ra.

Arratia eta Palenqueren arteko hartu-emona: 64 urteko historia







Los Rios (Ekuador) izan zan Elizaren historian Elizbarruti baten lehen misinoa eta bertara zortzi abadek osatutako honako lan talde hau bialdu eban Gasteizko Elizbarrutiak: Elias Zuloaga, Leandro Zaloña, Gregorio Alonso, Luis Alberdi, Bitor Garaigordobil, Frantzisko Arraibi, Eusebio Ozerinjauregi eta Maximo Gisasola. Azken hirurak bizkaitarrak ziran, arratiarrak hain zuzen be: Frantzisko Arraibi Lemoakoa, eta Eusebio Ozerinjauregi eta Maximo Gisasola Zeanurikoak; ganera, taldearen arduradun eta buru legez Maximo Gisasola joan zan. Ordutik hona lotura bat izan da Los Riosko misinoaren eta Arratiaren artean.



Panel desbardinen bidez 64 urteko historia honen barri emoten deusku erakusketa honek eta misino hauen inguruko hainbat ardatzetan oinarritzen da: Palenqueko geografia, eguneroko bizitzea, kultura, eliz alkarte eta parrokiak, kooperatibea eta kooperatibismoa, osasuna, irakaskuntza, eta abar.